

# UDALGINTZA ERALDATZAILEA



# LARRUN #258

# HERRITARREN BEHARRAK BURUJABETZAZ ASETZEKO

EGILEA | **ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA**  
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

**E**konomia sozial eraldatzaileko proiektuek (ESE) eguneroko praktikan erakusten dute posible dela jardueren erdigunean dirua metatzea ez den baloreak jartzea. Haien arteko sareak indartuz doaz, jarduera ekonomioen fase bakoitzaren geroz eta gehiago ESEko proiektuen bidez hornitzeko asmoarekin. Eta interkooperazio horretatik begirada lurraldean pausatu dute, ekonomia sozial eraldatzailea burbuilatxo bat izan beharrean ingurunea eraldatzeko erreminta baita. Gure herrietan gutxi batzuei etekina ematen dien jarduera toxikoak sustatu beharrean, komunitatearen bizitzeko beharrak asetzera bideratuko bagenu tokian tokiko eko-

nomia? Eta herritarrak egingo bagina gure inguruko ekonomiako erabakien jabe, jarduera ekonomikoetako prozesuetan partaide, gure lanaren burujabe? Ekonomia sozial eraldatzailea planteamendu hau udaletan eta garapen agentzietan aurkezteko proposamen zehatzak lantzen ari da. Heldu diezaiegun bizitzaren burujabetzarako lehentasunezkoak diren etxebizitza, elikadura, energia eta zaintza sektoreei. Landu ditzagun elkar-lanean komunitateek, udal erakundeek eta ESEko eragileek. Badira horretarako praktika zehatzak. Bidean loratuko da denontzat bizitzaren ederra, eta ekonomia burujabetza irabazi dezakete herritarrek, herriek, Euskal Herriak.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.715 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2020ko abenduaren 31

---

**KOOPFABRIKA**

Ekonomia sozial eraldatzaileko ekintzailletza programaren saio bat 2019-2020 ikasturtean.

**K**apitalismoak gero eta lurralde eta pertsona gehiago uzten du sistematik kanpo, landa eremuak hustuz eta gero eta jende gehiago langabeziara edo muturreko prekarietatera bultzaz. Horrez gain, pandemia honetan oso agerian geratu da merkatuak ez dituela bate-re zaintzen bizitzari eusteko justu lehentasunezkoak diren jarduerak: elikadura eta zaintza adibidez.

Ekonomia sozial eraldatzaileak (ESE esango diogu argitalpen honetan aurrerantzean) bere eredia zabaltzeko aukera gisa ikusi nahi ditu kapitalismoak bazter utzitako eremu horiek: despopulazera bidean diren edo langabezia handia dagoen lurraldeetan, eta bizitzaren burujabetzari eusteko lehentasunezkoak diren hainbat sektoretan, adibidez elikadura, energia, etxebizitza eta zaintzetan (gizarte zerbitzuak barne) kapitalismoak larriagotu-

tako arazoei erantzuteko alternatiba erreala izan daiteke kapitala pilatzeaz haragoko balio batzuetan oinarritutako ekonomia eredu bat erein eta lantzea.

Ekonomia sozialeko proiektuak martxan jarri nahi dituzten herritarrei formazioa emateko eta bidelaguntza egiteko, KoopFabrika ekintzailletza programa jarri zuten martxan duela bost urte hainbat eragileren artean: ekonomia sozial eraldatzaileko Olatukoop sarea, EHuko Gezki institutua, Mondragon unibertsitateko Lanki ikertegia, eta hainbat erakunde publiko. Sorreratik izan du KoopFabrikak lurralde ikuspegia, hau da, ekonomia sozialeko proiektuak inguruko komunitateetan txertatzea eta proiektu horren eskaintza herriaren beharrekin uztartzea izan ditu bokazio. Bost urteotan 80 proiektu baino gehiagori lagundu dio KoopFabri-

kak erretzen, baina antolatzaileek aitortzen dute ahulezia nagusia lurraldetzean nabari dutela. Eta hori lantzeko, udalgintzarekin elkarlanean aritzea iruditzen zaie esparrurik eraginkorrena: batetik, erakunde hauek baitira herritarrengandik gertuenekoak eta bestetik, udal erakundeak baitira tokiko beharrei erantzun behar dietenak.

Zer sortu daiteke bi eremuak uztartzen badira? Hau da, ekonomia sozial eraldatzailearen balioak eta praktikak tokiko garapen ekonomikoaren estrategia eta lanketekin le-rokatzen badira?

**EGUNGO PANORAMA:  
UDALETAN TXANPINOIAK,  
GARAPEN AGENTZIAN  
INBERTSIO IKUSPEGI HUTSA**

Ekonomia sozialaren eta udalgintzaren artean hainbat elkarlan egin izan dira azken hamar urteotan:

ekonomia sozial solidarioko REAS sareak udal politiketarako planteamendu zabal eta zehatza landua dauka eta udaletan aurkeztu eta martxan jartzen saiatzen da. Euskal Herrian zehar han eta hemen badira tokiko adibide oso onak, baina Olaturkoopeko kide den Beñat Irasuegik kritikoki baloratu duenez, “ekimen puntualak dira, ez udalen estrategia landu baten ondorio. Batez ere ekonomia soziala ezagutzera emateko ekimenak dira gehien egiten direnak: jardunaldiak, formazio saioak... baina udal eta garapen agentziek herriko oraingo eta etorkizuneko ekonomia planifikatzen dutenean ez dute ekonomia soziala estrategien zentroan jartzen”. Tokian tokiko ekimen puntual horiek saretzeko eta esperientziak partekatzeko egitura ere faltan nabari du Irasuegik. Katalunian azken bost urteetan eman dituzten urratsak inspiratzaile izan daitezke bide horretan (ikus 6. orrialdeko koadroa).

Diagnostiko horrekin bat dator Enekoitz Etxezarreta, EHUko Gezki institutuko kidea: “Orain artean udalek eta garapen agentziek tokiko

ekonomia sustatzeko aurrera eraman dituzten estrategietan ikuspegi neoliberalak izan da nagusi: helburua kanpoko kapitalarentzat erakargarriak diren lurraldeak sortzea izan

**KANPOKO INBERTSIOAK ERAKARTZEA IZAN DA ORAIN ARTEAN TOKIKO GARAPEN ESTRATEGIA NAGUSIA. HORREN AURREAN, EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAK BESTE EREDU BAT PROPOSATZEN DU: BALIOETAN OINARRITUTA LURRALDEA ABERASTASUN SORTZAILE IZAN DADIN**

da, bai abantaila fiskalen bidez, edo inoiz erabiliko ez ziren pabilioi industrialak, garraio sareak eta antzeko azpiegitura erraldoiak eraikiz...”

Eredu horren aurrean, KoopFabrikak tokiko arduradunei proposatzen die tokiko garapen ekonomikoak edukiz bete dezaten, ekonomia sozialaren balioetan oinarritutako garapena bultzatzea: tokikoa, deslokalizatu ezin dena, bertako indar endogenoak aktibatzen dituen, harreman parekideetan oinarritutakoa, kudeaketa demokratikoduna, lanaren burujabetza sustatzen duena, aberastasunaren banaketa egiten duena... lurraldea inbertsio edukiontzia bat izatetik aberastasun sortzaile izatera pasatzea litzateke helburua. Eta horretarako modurik eraginkorrena, ESE sustatzea izan liteke, proiektu ekonomiko hauek eguneroko praktikara eramaten baitituzte lurralde osoarentzako onuragarri diren balioak: burujabetza, lankidetzeta, elkartasuna, berdintasuna, justizia ekonomikoa, demokrazia eta abar.

ESEk “bizitzaren iraunkortasuna” jartzen du ekonomia helburuen erdigunean, etekin ekonomiko hutsaren ordez. Horregatik, tokiko garapena bizitza sostengatzen duten jardura produktibo zein erre-



produktiboak indartzera bideratu behar litzatekeela aldarrikatzen dute, baina ez edozein modutan: jarduera ekonomikoen kontrola herritarrek berreskuratzea litzateke funtsa. Bizitzarako beharrezkoak diren jarduerak tokian toki modu autoeratu, kolektibo eta komunitarioan kudeatzea litzateke helburua, beharrianak bizi dituzten komunitate eta pertsonak beharrian horiek asetzeko ahaldunduz, egitasmoen jabe eta partaide eginez.

### UDALGINTZA ERALDATZAILEA, HERRITARREK EKONOMIAN ERABAKIMENA BERRESKURATZEKO

“Udalgintza eraldatzailea” terminoak uztartzen ditu, batetik, erabat instituzioekin lotzen den praktika politiko eta estrategikoa, eta bestetik, ekonomia sozial eraldatzailetik egiten diren praktikak eta balioak. Zertarako behar da udalgintza eraldatzailea? Galderari horrela erantzun dio Irasuegik: “Herritarrok eta eragile antolatuok izan dezagun zeresana eta erabakitze gaitasuna

gure lurraldeetako estrategia sozioekonomikoak nolakoak izango diren erabakitzeke”.

Udalgintza eraldatzailea gartzetaz eskatzen du gizarteko hiru erpinen arteko elkarlana: komunitatea, erakunde publikoak eta ekonomia sozialeko eragileak. Etxezarretak honela azaldu du eredu publiko-kooperatibo-komunitarioaren ideia: “Publikoak bermatzen du unibertsaltasuna, jende guztiarentzako baliagarria den ereduia izan dadila, jende guztiak izan dezala irisgarritasun bera; kooperatiboak bermatzen du jarduera ekonomikoa den heinean izpiritu kooperatiboa jarraitzen duen kudeaketa ereduia izatea; eta komunitarioak adierazten du txertatuta dagoen gizarte edo komunitate horri ahotsa eta partaidetza ematen dizkiola”. Burujabetzarako funtsezkoak diren hiru elementuak biltzen ditu elkarlan honak: jabetza, proiektua eta erabakietan parte-hartzea. Irasuegik azaldu duenez, “badaude moduak juridikoki ere elkartu ahal izateko udal administrazioa, erabiltzaileak, jarduera horretako langileak, gizarte

eragileak...”. KoopFabrika legelarien bidez azterketa juridikoa egiten ari da, udalen eskura erreminta zehatzak jartzeko, proiektu publiko-kooperatibo-komunitarioak zein izaera juridikoren bidez egituratu daitezkeen jakin dezaten.

Komunitatea bere bizitzako beharrianak asetzeko antolatzeari garrantzia handia ematen diote. Izan ere, konfinamenduan beste behin agerian geratu da merkatuak ez dituela bizitzako beharrak asetzen. Sozialdemokraziaren arabera estatua da merkatuari aurre egiten dion eragile nagusia eta zentrala, baina Etxezarretak dudak jarri du uste hori: “Sarri ikusten dugun moduan, estatuak merkatuari aurre egin diezaiok, edo alderantziz, estatua izan daiteke merkatuaren interesetarako aliatu onena. Berez, nola eutsi merkatuari? Nola geldiarazi bizitzako esparru guztietan merkatuaren etengabeko hedapena? Komunitatea bera izan daiteke logika kapitalisten euste-dikea, horretarako lehenik komunitateak ahaldunduta”. Irasuegik “arnas luze-ko prozesua” dela nabarmendu du:



**KOOPFABRIKA**  
Ekintzailetza  
programaren hainbat saio  
2019-2020 ikasturtean:  
begirada feminista eta  
agroekologiaren ikuspegia  
lantzen, besteak beste.

# KATALUNIA

## *Bidean hiru adibide*

**K**ataluniak azken 5-10 urteetan udalgintza eraldatzailean egin duen bidea jaso du EHUko Gezki institutuko kide diren Enekoitz Etxezarreta eta Jon Morandeararen ikerketak. Horretarako, Jordi García Janék argitaratu izan dituen lanetan oinarritu dira. García Janéren arabera, bi prozesu paralelo egon dira Katalunian: batetik, tokiko garapenez arduratzen diren eragileen barne eztabaidak; eta bestetik, ekonomia sozial solidarioko eragileen barne eztabaidak.

Ekonomia sozial solidarioko erakundeek geroz eta argiago ikusi zuten proposamen zehatzak egin behar zizkietela tokiko garapenean diharduten eragileei, eta horren emaitza da Xarxa de Economia Solidariak (XES) egindako 15 puntutako proposamena (Olatukoopek beregain hartu du bide orri modura). Baina hain eraldatzaileak ez diren kooperatibismo beste sektore tradizional batzuek ere, adibidez Kataluniako Lan Elkartuko Kooperatiben Konfederazioak, proposamena egin zuten udalerrriak kooperatibizatzeke.

Bestalde, tokiko garapenez arduratzen diren eragileen artean, indarra hartzen joan zen Joan Subirats Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak landutako hausnarketa: ordura arte norabide argirik gabe egin izan zela tokiko garapena, helburutzat hartuta desenpleguari aurre egiteko edozein motako jarduera ekonomikoa sortzea. Desenpleguari aurre egiteko martxan jarri zituzten ekintzaitza programetan, hor egin zuten topo ekonomia sozialeko figurekin.

Beraz, bai ekonomia sozialeko eragileen eta bai tokiko garapenez



**XARXA DE MUNICIPIIS.** Ekonomia sozial eraldatzailearen aldeko Kataluniako udalen sarearen aurkezpen ekitaldia.

arduratzen diren eragileen barruko bi prozesu horiek aldi berean ematen ari ziren, eta garai zehatz batean gurutzatu egin ziren. Noiz? García Janéren arabera, inflexio puntua 2015eko udal hauteskundeetan eman zen, indar korrelazioak aldatu zirelako eta aldeko egoera bat sortu zelako: udal batzuk Comuns eta ezkerreko beste hainbat alderdiren esku geratu ziren eta hor hasi zen erakundetzea.

### **ATENEU-AK, UDALEN SAREA ETA PLANA**

Erakundetzerakoan hiru giltzarri aipatzen ditu García Janék: Lan kontseilari Dolors Bassak Generalitatetik finantzaturako "Ateneu Kooperatiboen sarea" programa. Ate-neuak zerbitzu publikoa dira, eta eskualdez eskualde ekintzaitza eta enplegu berriak sortzeko ekonomia sozialeko eragileetan oinarritzen dira.

Beste giltzarri garrantzitsu bat da 2017an Xarxa de Municipis eratu izana: udalek sare horretan partekatzen dituzte udalerrietako praktikak eta esku hartze eredu komunak

zehazten dituzte (Frantzia badago baina Euskal Herrian ez dago horrelako ezer). 32 udal hasi ziren sare horretan eta egun 41 udalerrri dira. Elkarrekin garatu dituzten ekimen garrantzitsuetako batzuk hauek dira: udalerrietan ekonomia sozial solidarioko formazio espezifikoak duten teknikariak prestatu dituzte; udalerrri hauetan ekonomia sozial solidarioko udal zerbitzua sortu dute, udalerriko erakunde motorra izateko; ekonomia sozial solidarioa detektatzeko, ezagutzeko eta mapatzeko tresnak garatu dituzte; ekonomia sozial solidarioko espezialisten bankua sortu dute...

Eta hirugarren giltzarria Bartzelonako Udaleko kasua da. Bertan Comissionat izeneko udal erakunde bat sortu zuten, interdepartamentala eta honek abian jarri zuen PIESSE edo ekonomia sozial solidarioa sustatzeko plana: Espainiako Estatuan egon den planik anbizio-tsuen da, bai ikuspegi integrala duelako, bai finantzazio aldetik eta baita ekonomia sozial solidarioaren eta udalaren arteko elkarlanean egin delako ere.



**GARESKO AUZOLANA**  
Eguzki plakak jartzeko lanak.

“Bizitza modu kooperatibo eta komunitarioan antolatzea gaur egun ez da ohikoena, ez da gizarteak daukan joera, eta horri denbora eman behar zaio, norabidea argi eduki eta ekin, eta ekin, eta ekin. Emaitzak ez dira berehalakoak izango, eta horrela ulertu behar dugu”. Horregatik, udalgintza eraldatzailea lantzeko legegintzaldia gainditzen duten eta erakundeen logiketarik arago joan behar luketen prozesuak eta proiektuak bultzatzea “ezinbestekoa” dela gehitu du.

### **NOLA EKIN UDALGINTZA ERALDATZAILEARI?**

ESE proiektuak martxan jarriko dituzten herritarrak formatzeko lan egiten duen KoopFabrikak 2020-2021eko ikasturtean jauzi bat eman nahi izan du udalgintzaren eremuan, eta berariazko formazioa antolatu du udaletako eta garapen agentzietako teknikarientzat. Horrez gain, KoopFabrikako kide den Gezki institutuko Enekoitz Etxezarretak eta Jon Morandearak *Lurral-*

*de burujabeak eta udalgintza eraldatzailea* lan mardula egin dute; udalgintza eraldatzailearen planteamendua azaldu dute bertan eta udalek martxan jar ditzaketan lan

**BIZITZARAKO  
BEHARREZKOAK  
DIREN JARDUERAK  
TOKIAN TOKI MODU  
AUTOERATU, KOLEKTIBO  
ETA KOMUNITARIOAN  
KUDEATZEA DA  
UDALGINTZA  
ERALDATZAILEAREN  
HELBURUA**

ildoak eta praktika zehatzak bildu dituzte bertan. Lan horretan, lau ildo proposatzen dituzte, udalgintza eraldatzaileari ekin nahi dioten

tokiko eragileek martxan jar ditzaketan.

Lehenik, udalek erosketa publiko arduratsuak egitea eta udal ekipamenduen kudeaketa kooperatibo-komunitarioa egiteko mekanismoak garatzea. “Herri erakundeek esfortzu berezia egin beharko lukete eskari publikoa ekonomia sozialeko enpresa txiki eta ertainetara bideratzeko” diote lan horretan, eta oroitarazi dute juridikoki badirela hainbat aukera: Kontratu publikoak lote gehiagotan banatzea aholkatzen duen zuzentarau europar bat bada, eta horrek aukera gehiago eskaintzen dizkie enpresa txiki eta ertainei lizitazio publikoan onuradun izateko; eta enpresa handiei aldiz, mugatu egiten die eskala ekonomiak ematen dien abantaila. Juridikoki beste erreminta bat “erreserbatutako kontratuen mekanismoa” da, honek herri erakundeen kontratuen ehuneko bat ekonomia sozialeko erakundeei erreserbatzeko betebeharra ezartzen baitu. Beste tresna bat gizarte

klausulak dira, hauek aukera ematen dute ekonomia sozialari berezkoak zaizkion printzipioekin funtzionatzen duten enpresak hobeto baloratuak izan daitezzen lehiaketa publikoetan. Badira bestelako mekanismo juridikoak ere lankidetzako publiko-kooperatibo-komunitarioa garatzeko: adibidez, udalak ekonomia sozialeko enpresetan bazkide izatea. Edo lankidetzako hitzarmenen bidez ekipamendu publiko baten lagapena bideratzea modu kooperatiboan kudeatzeko: adibidez, lursail publiko bat jarduera agroekologikoak garatzeko bideratzea edo etxebizitza kooperatiboak eraikitzearen erreserbatzea.

Udaletan landu daitezkeen bigarren ildoak, ekonomia sozialeko enplegua bultzatzea da. Horretarako hainbat aukera proposatzen ditu Gezikiko kideen lanak: adibidez, udal batek herritarren erabiltzaile

sareak edo kontsumo taldeak dinamizatu ditzake, horien eskaria ekonomia sozialeko eragileetara bideratuz. Edo enpresen berreskuratzeko eta transformazio prozesuak ekonomia sozialeko formulatara bideratu ditzake.

Hirugarren ildoak diru-laguntza publikoena da, bai zerga ikuspegitik edo baita ere gastu publikoaren bidez ekonomia sozialeko eragileak ekonomikoki sustatuko lituzkeena.

Eta laugarren ildoak dira erakunde publikoek gehien egiten dutena, baina benetako eraldaketarako "politika bigunenak" direnak: ekonomia soziala ezagutzera emateko eta ikusgarri egiteko ekimenak dira, hau da, jardunaldiak, udal mailako mahai sektorialak osatzea, aholkularitza zerbitzuak eskaintzea, sektorea artikulatzeko merkatu sozialak antolatzea, prestakuntza programak eta ikerkuntzak finantzatzea...

## UDALEK HELBURUAREN ARABERA EGIN DITZAKETEN EKINTZA ZEHATZAK

Udalek eraldaketa ekonomikoari ekiteko landu ditzaketan lau ildo horiez gain, Etxezarreta eta Morandearren lanak xehe azaldu dituzte udal-entzuten aurrera eraman daitezkeen hiru esku-hartze eredu, eredu horietarako ekintza zehatzak proposatuz. Helburuaren arabera bereizten dira hiru esku-hartze eredu hauek (ikus "ongarritu, erabili, eraldatu" koardoa): "Ongarritu" izenarekin definitutako esku-hartzearen helburua litzateke ekonomia sozialeko esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak eragitea lurraldean. "Erabili" izena eman dioten esku-hartzearen helburua, lurraldearen beharrazane dagoeneko martxan diren ekonomia sozialeko formulen bidez erantzutea litzateke. Eta "Eraldatu" esku-hartzearen bidez udala ekono-

**Helburuaren arabera, udalek egin ditzaketan hiru esku-hartze eredu zehatzu ditu EHUren Gezki institutuko kide diren Enekoitz Etxezarreta eta Jon Morandearren Lurralde burujabeak eta udalgintza eraldatzaileak lanak:**

### ONGARRITU



**HELBURUA:** Ekonomia sozialeko esperientzia berriak sortzeko baldintza egokiak eragitea.

**NEURRIAK:** Lurralde diagnostikoak eta ikerketak; ekonomia sozialeko eragileen mapeoa; esperientzien bankua; esperientziak gizarteratzeko jardunaldiak; merkatuak eta azokak; gizarte zerbitzuen erabiltzaileak saretu arazo partikularrak maila kolektiboan asetzeko ahaldunduz; udaletako sail ezberdinetako teknikariak prestatu; udal batzordeak eta lan mahaiak sortu; kontratazio publikoan ekonomia soziala lehenesteko marko normatibo egokiak garatu; zaintza sare komunitarioak sustatu...

**GOBERNANTZA:** Udal erakundeena da lidergoa.

### ERABILI



**HELBURUA:** Lurraldearen beharrazane erantzuterakoan, dagoeneko martxan diren ekonomia sozialeko formulak erabiltzea eta indartzea.

**NEURRIAK:** Ekonomia sozial eraldatzaileko eskaintza eta eskaria sustatzea. Eskaintza indartzeko: ekonomia sozialeko enpresei laguntza tekniko eskaintzea; enpresa huentzat hobari fiskalak garatzea; ekonomia sozialeko enpresentzat finantzazio lerroak garatzea...

Eskaria indartzeko: udal ekipamenduak lagatzea ekonomia sozialaren zerbitzura eta kontratu publikoak ekonomia sozial eraldatzaileko erakundeetara bideratzea (berariazko gizarte klausulak sortuz, eta kontratu erreserben bidez).

**GOBERNANTZA:** Udal erakundeena da lidergoa.



mia sozialeko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo bihurtuko litzateke. Modu horretan, ESE indartzeaz bat udalgintza klasikoaren politika publikoa egiteko modua bera ere berrituko litzateke, eta finean, bestelako tokiko garapen eredu bat irudikatuko litzateke, ekonomia sozial eraldatzailearen balioekin gertuago logokeena.

Planteamendu are zehatzago bat ere egiten du Etkezaretara eta Morandeararen lanak: udaletatik burutu daitezkeen hiru esku-hartze eredu hauetako bakoitza zehazki lau sektore ekonomikotan nola aplikatu azaldu dute, ekintza zehatzekin. Lau sektore ekonomiko hauek bizitzaren sostengarritasuna bermatzeko estrategikoak dira: etxebizitza, gizarte zerbitzuak (zaintza), elikadura eta energia. Hauetako sektore bakoitzean udalgintza eraldatzaileak ekonomia soziala “ongarritu”, “erabili” edo “eraldatu” nahi badu zein praktika zehatz burutu ditzakeen proposatzen du lanak.

Etkezaretak desio du esku-hartze posibleen erreminta hau baliagarri izango dela ordezkari publiko, teknikari, eragile sozioekonomiko eta abarrentzat: “Hurrengo pausoa



**BENETAKO ERRONKA  
TEKNIKARIENGANA IRITSI  
ETA HAUEK FORMATZEA  
DA, PLANTEAMENDU HAU  
EZ DADIN IZAN KOLORE  
POLITIKO BATEK EDO  
BESTEK HARTU ETA KENDU  
DEZAKEEN ZERBAIT”**

**ENEKOITZ ETKEZARRETA**

da hiru esku-hartze eredu horiek simple simple azaltzeko material dibulgatiboak egitea, eta gero material hori azaltzea”. Hainbat udalekin eta

Udalbiltzarekin harremanak baditu Olatukoopek, planteamendu zehatz hauek zabaltzeko (ikus Udalbiltzaren koadroa). Baina Etkezaretaren ustez, “benetako erronka teknikariengana iristea da, hau ez dadin izan kolore politiko batek edo bestek hartu eta kendu egin dezakeen zer-bait. Katalunian asko azpimarratzen dute hori. Teknikariak formatzera iristen bagara, hau da, teknikariak ezagutzen badu zer den ekonomia soziala, eta ezagutzen badu zer erreminta ezberdin izan ditzakeen udal mailan esperientzia hauek bultzatzeko, prozesu interesgarriak sor daitezke”. Baina Etkezaretak onartu duenez, proposamen honek udal teknikariengana sarbidea izateak alkatetzaren aldetik “borondate politikoa eskatzen du, udal arduradunek ekonomia sozialeko eragileei aukera eman diezaieten, teknikariei formazio hauek eman ahal izateko”. Garapen agentzietako dinamika beste bat da eta hauetako teknikariengana pixkanaka iristen ari direla dio.

## ERALDATU



**HELBURUA:** Udalak ekonomia sozial eraldatzaileko esperientzia berriak sortzeko eragile aktibo izatea.

**NEURRIAK:** Ekintzailatza sozial eta kooperatiboko programa publiko eta dohainekoak eskaintzea udalerrietan; zaintza langileak erregularizatzen eta kooperatibizatzen dinamikak aktibatzea (paper gabeen egoera erregularizatzen kooperatibak tresna gisa erabiltzea); erabiltzaile eta langileak elkartzen dituzten kooperatibetan bazkide gisa parte hartzea...

**GOBERNANTZA:** Publiko-kooperatibo-komunitarioa. Horretarako, hiru eragile hauek parte hartuko luketen egiturak jarriko lirateke martxan:

- Alde batetik, gizarte zibilak edo sare komunitarioak hartuko luke parte, zerbitzuen erabiltzaileek, alegia, bai jardueraren diseinuan eta planifikazioan. Herritarrek zerbitzuen kontrola berreskuratzeko.
- Bestetik, ekonomia sozialeko enpresek hartuko lukete parte zerbitzuaren planifikazio eta kudeaketan. Kudeaketan, erabiltzaileen

parte-hartzea bermatzen duten egituren alde jo behar da, adibidez, kooperatiba integralen formularekin, erabiltzaileak erabakiguneetan egonik.

- Hirugarrenik, udal erakundeen parte-hartzea legoke, funtzio guztietan: diseinu, planifikazio eta kudeaketan eta kontrolean: gizarte helburuak betetzen direla eta herritar guztiek sarbidea dutela bermatzeko. Elkargo publiko-kooperatibo-komunitario hauek izaera juridiko ezberdinak hartu ditzakete.

## KOMUNITATETIK ETA ENPRESATIK ERE BULTZA DAITEKE

Udal arduradun eta teknikariez gain, gizarteko beste eragileengandik ere sustatu daiteke tokiko ekonomiaren eraldaketa. Prozesu horietarako hiru egitura maila azaltzen ditu Etxezarreta eta Morandeiraren lanak: maila mikroa enpresena litzateke, eta enpresa kapitalistek ekonomia sozial eraldatzaileantz bidea egitea litzateke gakoa. Maila mesoa, ekosistema kooperatiboak artikulatzea litzateke, interkooperazioaren bidez jarduera ekonomikoaren fase guztiak ekonomia sozial eraldatzaileko egituren bidez hornitzea lortu arte. Eta maila makroa litzateke lurraldeko sarea jostea, herrietako bizitzako beharrak asetzeko gobernantza publiko-kooperatibo-komunitarioko ereduatarantz joz. Irasuegik azpimarratu du “txikitik eta egingarritik hastea” dela gakoa “eta ekintzatik abiatzea. Gero lotuko da hori iparrarekin eta estrategiekin, baina ekintzatik abiatzea eta ekintzatik pentsatzea garrantzitsua da”.

Ekiteko, toki bakoitzean eragile mota batek egin dezake motor lana, tokian toki eragile hauetako bakoitzak duen indarraren arabera: udal erakunde publikoak, komunitatea eta ekonomia sozialeko eragileak.




**TXIKITIK ETA EGINGARRITIK  
HASTEA GAKOA DA.  
GERO LOTUKO DA  
HORI IPARRAREKIN ETA  
ESTRATEGIEKIN, BAINA  
EKINTZATIK ABIATZEA ETA  
EKINTZATIK PENTSATZEA  
GARRANTZITSUA DA”**

**BEÑAT IRASUEGI**

Irasuegik elkarrengandik gertu dauden hiru bailaretako adibideak jarri ditu, bakoitzean eragile bana ari baita bultzaka: “Debagoiena 2030’ prozesua martxan dago eta bailara horretan kooperatibismoak indar

handia duenez, prozesu hori bultzatzeko ere indarra dauka. Goierrin, aldiz, kooperatiba handietatik aparte eragile txiki eta pertsona asko elkartu dira ‘Biziola’ proiektuan. Beste toki batzuetan udalgintza instituzionala da ekimena hartzen duena, adibidez Hernanin ‘Iturola’ espazioa sortzeko eta espazio horren bueltan sortzen ari diren harreman-sareak eta estrategiak lantzeko Beterri-Buruntza eskualdeko udalak ari dira lanketa egiten”. Baina Irasuegik ohartarazi du beste lurralde askotan ez dagoela horrelako dinamikarik, eta horietan eragitea estrategikoa dela. Horrela, Euskal Herri osoaren burujabetza ekonomikoa landuko litzateke elkartasunez eta sarean.

Hurrengo orrietara, esperientzia zehatzak ekarri ditugu. Udalbiltzak udalgintza eraldatzailearen bidean abiatutako Hauspotu programa, batetik. Eta bestetik, lehentasunezko lau sektoreetako esperientzia bana: elikadurako Urduñako esperientzia, energiako Garesko proiektua, zaintzako Maitelan kooperatiba eta etxebizitzetan erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatiben eredua. ●



## Udalbiltzaren 'Hauspotu' programa

2019ko udan ekin zion Udalbiltzak *Hauspotu* programa lan-tzeari. Honen aurrekari izan zen 2013-2015 urteen artean egin zuen *Euskal Pirinioetan lan eta bizi* programa: "Haren arrakasta ikusita, pentsatu genuen beste hau martxan jartzea", azaldu du Aitor Elexpuruk. Despopulazioa, langabezia eta zerbitzuen irisgarritasunean arazoak dituzten eskualdeak bultzatzea da *Hauspoturen* helburua, hori guztia ekonomia sozial eraldatzailean oinarritzen diren proiektuak sustatuz.

### ZONALDE GORRIAK HELBURU

Lehenik, Udalbiltzak Gaindegiari eskatu zion aztertu zezala Euskal Herriko zein eskualdek zituzten arazo horiek: despopulazioa, langabezia eta zerbitzuen irisgarritasuna. Ondoren, Udalbiltza bera hurbildu zen eskualde horietara eta lehen kontaktua egin zuen bertako alkate, zinegotzi eta ESEn lanean ari diren jendeekin. *Hauspotu* programa aurkeztu zien eta herri horietan egingo zituzten formazio saioetara gonbidatu zituzten.

### FORMAZIO SAIOAK ESKUALDEETAN

2020an zehar formazio saioak antolatu ditu *Hauspotu* programak, mapan gorri ageri diren zonaldeetan. Udal eta garapen agentzietako teknikariak eta proiektu berriak abiatu nahi dituzten herritarrak formatzeko balio izan dute. Eduki alde-tik, bi zati izan dituzte: ESEn murgiltzeko zer pauso eman behar diren landu dute teorikoki, eta bestetik, martxan diren esperientzia praktikokoak aurkeztu dituzte. Herri haue-tan denetan egin dituzte formazio saioak: Araban Argantzun eta Espejon; Bizkaian Enkarterri bailaran; Nafarroan Sartaguda, Tafalla, Liza-

rra, Deierrri, Gares, Larraga, Mendigorria, Agoitze, Irunberri, Galoze, Otsagabia, Burgi eta Zangotzan; eta Nafarroa Beherean Izuran.

### 13 PROIEKTU BERRIREN ONGARRI

Formazio saio hauen ondoren, epe bat zabaldu zuten jendeak proiektuak aurkeztu zituzten. *Hauspotu* programaren laguntza jasotzeko interesa zuten 27 proiekturen eskaerak jaso zituzten: Arabako bat, Bizkaiko hiru, Iparraldeko bi eta Nafarroako 21.

Proiektua aurkeztu zutenei, formakuntza eskolak eman dizkiete udazken honetan. Formakuntza bidezko babes honek bi ardatz ditu: batetik laguntza teknikoa eskaintzen du *Hauspotuk* Olatukoopen bidez, eta bestetik laguntza ekonomikoa Koop57 bidez. "Koop57ri 25.000 euro esleitu dizkio *Hauspotu* programak, modu honetan Koop57k proiektu berri hauei 250.000 euro arteko maileguak eman ahal izan diezaien". Prozesu honen ostean, *Hauspoturen* laguntza jaso nahi duten eta ESE baldintzak betetzen dituzten 13 proiektu sendo aurkeztu dira.

### "JENDEAK GOGO HANDIA DU BERTAN BIZITZEN JARRAITU ETA EKINTZAILTZA EGITEKO"

Udalbiltzak bilerak egin ditu Nafarroako CEDERNA-Garalur eta Lizarraldeko garapen agentziekin eta baita Pirinioetako mahaiarekin ere, *Hauspotu* programa aurkezteko: "Jaso ditugun proiektu gehienak beraien eremuetakoak direnez, interesgarria baita honen berri izatea eta haien teknikariak formatzea". Horrela jarraitu du Elexpuruk: "Gaia pixka bat xaxa-



## AITOR ELEXPURU

BERAKO ALKATEA ETA  
UDALBILTZAKO HAUSPOTU  
PROGRAMAREN ARDURADUNA

tu orduko ikusi dugu jendeak gogo handia duela toki horietan bizitzen jarraitzeko eta ekintzailtza lanak egiteko. Hor inbertitu eta lagunduz gero, hainbat proiektu eramango litrateke aurrera".

### HURRENGO URRATSA: UDALGINTZA ERALDATZAILEA

"*Hauspoturen* bigarren faseari ekiten gogoz gaude, eta udalgintza eraldatzailea landu nahi dugu: arlo publikoaren eta arlo kooperatibo-komunitarioaren arteko elkarlanak eta sinergiak sortzea izango da hurrengo erronka. Horretarako, udalak eta garapen agentziak proiektu honetara erakartzea gakoa izango da". Programa honi esker martxan jarri diren proiektuak egonkortzea ere helburuen artean da. ●



MAPA. Gorri, despopulazioa, langabezia edo zerbitzu irisgarritasun arazoak dituzten zonaldeak.

## Zaintza: Maitelan kooperatiba

**2**020an sortu berri da Maitelan kooperatiba. Lehenik, Hernaniko Iturola garapen agenziako teknikariek eskatuta, ikerketa lana egin zuen EHUko Gezki institutuak, Beterri-Buruntza eskualdeko zaintza beharrak aztertuz. Horren ostean, duela bi urte, Hernaniko Amher SOS Arrazakeria taldeak eta Iturolak elkarlanean prozesu bat bultzatu zuten emakume migratuekin. 30-40 emakume biltzen ziren larunbatero eta denen artean identifikatu zituzten zaintza sektoreko hutsuneak: prekaritate nabarmena, kontraturik gabeko lanak, 900 euroren truke 24 orduz lan egiten zuten etxeko langile internoak... Prozesu horretan aukera ikusi zuten kooperatibizatuta sektorea eraldatzeko.

### 48 BAZKIDEDO KOOPERATIBA INTEGRALA

2020ko otsailean egin zen Maitelan kooperatibaren batzar eratzailerak. Prozesua hasi zuten 30-40 emakume migratuetatik, zazpi egin ziren langile bazkide: horietatik lau formalak dira eta beste hiru erregularizatu gabe daude (paperik ez dute), baina Maitelaneko egituretan parte hartzen dute erabakimen eta eskubide bereberekin. Kooperatibara batzeko pausoa eman ez zuten gainerako langileekin lan poltsa sortu dute eta puntualki, langile bazkideek ezin dutenean zerbitzu bat burutu, lan poltsa horretara jotzen du Maitelanek.

Baina bazkide langileez gain, badira beste bi bazkide mota: erabilitzaileak (zerbitzua jasotzen dutenak) zortzi dira, hauetatik bost norbanakoak eta hiru erakundeak. Eta bazkide kolaboratzaileak, hauetatik 27

norbanakoak eta sei erakundeak. “Maitelanek hiru eragile horiek batzen ditu zaintzen gaia egun nola dagoen lantzeko eta nora iritsi nahi dugun pentsatzeko” azaldu du Ernesto Fernández koordinatzaileak. Argi dute zaintzen krisi hau konpontzeko “zaintzak desmerkantilizatu” behar direla: “Maitelan merkatuan dago baina modu politiko batean eta beste era batera egoterik ez duelako oraingo. Maitelan ez da soluzioa, baina bide txiki bat hasi du zaintzen eraldaketaren bidean”.

### LAN DUINA ETA PAPERAK HELBURU

Maitelanen helburua sektorea duintzea da, zaintza prekaritate estruktural horretatik ateratzeko. Horretarako, sortu orduko hitzarmen bat lantzen hasi ziren, lana duinduko zuten estaldura sozialak (oporrak, paga extrak...) bermatzeko. Baina oraindik ez dute helburu hori lortu. Fernándezek aitortu du badirela lan baldintza hobek dituzten enpresa neoliberalak.

Zaintza lanaz gain garbiketa sektoreari ere eutsi diote hasieratik, “langileei gutxieneko egonkortasuna emateko. Zaintzaren sektorea oso aldakorra baita, garbiketa zerbitzua berriz, ez”. Soldatak kooperatibizatu nahi izan dituzte, hau da, egiten zen lana edozein izanda ere, orduko kobratzen zen kopuru



MAITELAN. Kooperatibako bazkideak.



### ERNESTO FERNÁNDEZ

MAITELAN KOOPERATIBAKO  
KOORDINATZAILEA

gordina bera izatea. “Baina bi hitzarmen horiek txanpon beraren bi aurpegiak dira: garbiketako oso indartsua, eta zaintzakoa askotan existitu ere egiten ez dena”. Garbitasun hitzarmeneko soldata zaintzakoan aplikatuz gero, konturatu dira ezin dutela merkatuko prezioetan lehiatu: “Horregatik, urtarrilerako bereizi egingo ditugu zaintza lanak eta garbiketakoak, ezberdin kobratuko da. Galdutako bataila bat da, baina ezin da bestela egin”.

Maitelanen beste helburu bat pargabeen egoera kooperatiba bidez erregularizatzea da. Hor ere zailtasunak handiak dira: “Erregularizatu nahi dugun pertsona bakoitzeko kooperatibak 10.000 euroko kapital soziala izan behar du, eta horrez gain gutxienez lanaldiaren %80ko kontratu bat pertsona horrekin”.

Maitelan une honetan 11 zerbitzu ematen ari da, eta denen artean ez dira egun osoko lanaldi batera iristen: bi bazkide ari dira lanean, bat lanaldiaren %70ean eta bestea %20an. Zerbitzu gehiago lortzea da, Fernándezen ustez, aukera emango dena etorkizunean langileen estaldura sozialak hobetzeko, soldatak igotzeko eta paper gabeen egoera kooperatiba bidez erregularizatzen. ●

## Agroekologia: Urduña

Urduñako agroekologia trantsizioaren proiektua 2006an hasi zen, Ekoizpen Urduña zerbitzua martxan jarrita. Udalak eta herriko eragileek egin zuten hausnarketa prozesu baten ondorioz iritsi ziren zerbitzua martxan jartzera: 2000. urtetik herriak krisi egoera bizi zuen eta etorkizunera begirako proiektzioa egiteko beharra sentitu zuten. Hausnarketan erabaki zuten apustua turismoa, komertzio txikia, eta lehenengo sektorearen alde egitea. Lehenengo sektoreak ikusi zuen lurrari lotutako ekoizpenaren alde egin behar zuela eta abeltzaintza ekologikoa izan zitekeela etorkizuneko aukera.

### HASIERATIK AGROEKOLOGIA

Ekoizpen Urduña zerbitzua 2006an martxan jarri zenean elikadura burujabetza finkatu zuen helburu gisa eta lan marko modura agroekologia. Hasierako hiru urteetan lehenengo sektorearekin lanketa egin zuten: "Helburua baserriei bideragarritasun ekonomikoa bilatzea zen. Baserriz baserriko lanketa egin zen, ekoizpen kostuak identifikatzeko. Ondorioa izan zen bi eremutan lan egin behar zela: batetik ekoizpen gastuak murrizten, eta bestetik azken kontsumitzaile-rainoko bidea lantzen, horrela diru-sarrerak handitzen zirelako. Modu

horretan baserritarrek ulertu zuten zer zen agroekologia eta ikusi zuten marko teoriko horrek onurak ekartzen zituela beren baserrirako, eta gainera, etorkizuneko erreleboari begira, etxeko gazteentzat aukerak sortzen zituela". Pozik dio Marijo Imaz teknikariak denborarekin erreleboa gauzatu dela zenbait baserritan.

### HERRIKO SUKALDEAN BERTAKO JAKIAK

Hasieran trantsizioaren narratiba asko oinarritu zuten lehen sektorean, ekoizpen eredu... "Baina udalak ikusi zuen diskurtso hori ez zela herritar guztiengana iristen. Guztiengana iristen zen gai transbertsala elikadura sistema zela ulertu zuen eta 2009an narratiba aldatu zuen, komertzio txikiak eta industria proiektura hurbiltzeko".

Tokiko kontsumoa sustatzeko ordura arteko urratsak ongi baloratzen zituen udalak: baserri-tarren merkaturia abiatu izana, tokiko komertzioaren eta baserri-tarren arteko aliantza sortzea, kontsumo taldeak dinamizatu izana... "baina ikusten zen norbanakoen kontsumoan eragitea zaila zela. Orduan, udalak kontsumo kolektiboan jarri zuten fokua: udalak eredu ematea, sentsibilizazio kanpainarik onena baita udalak bertako produktuak kontsumitzea". Zaharren egoitzako sukaldea aldatu zuten bertatik egoitzari eta ondoan duen eskolari zerbitzua emateko. "Erosketa publikoa egiteko pleguak atera zirenean irizpide agroekologikoak sartu zituen udalak. Ondorioz, aukeratutako banatzaileak hurbileko baserri-tarrak izan ziren". Sukaldea



**MARIJO IMAZ**

URDUÑAKO UDAL TEKNIKARIA

kudeatzeko zerbitzua kanpora aterea zegoenez 20 urte lehenagotik, oraingoz ez dute aukerarik bilatu langileak publikatu edo kooperatibizatzeke, eta proiektuari ekiteko aurkitu zuten irtenbidea kontratua banatzea izan zen: pertsonala alde batetik kontratatzea eta elikagaien erosketa bestetik.

Sektoreak bultzatuta, elikadura burujabetzaren aldeko manifestua sinatu zuen udal batzak 2012an. Lan teknikoari babesa emateko garrantzitsua dela dio Imazek: "Helburua da elikadura sistema gai transbertsal bat izatea udalean. Denborarekin lortu da irizpide agroekologikoek beste udal ordenantza batzuetan eragina izatea: batez ere lurzoru publikoen erabileren inguruan". Urduñak lur komunalak ditu, eta ordenantzen bidez lehentasuna eman diete nekazari-tzatik %100 bizi diren baserri-tarrei, "bestela gazteek ez baitzuten modurik abeltzaintzan hasteko".

Abeltzainen elkarteak bultzatu eta udalaren babesa duen hurrengo erronka elikagaiak transformatzeko obradore kolektiboa jartzea da. Proiektu hau haragiaren elaborazioari buruzko formazioa eskaintzen erreferentzia izatea nahi dute. Eta 2021. urtean hurrengo 10-15 urteetarako elikadura estrategia berrikusiko dute. Hori ere, orain arteko gutzia bezala, prozesu parte-hartzaile bidez. ●



## Energia: Gares

**G**aresen tokiko garapenerako udal taldea sortu zuten 2014an. Hurrengo urtean bertako aditu gazte batzuk kontratatu zituzten ikerketa sozioekonomikoa egiteko. Oihan Mendo alkateak azaldu duenez, “guretzat garrantzitsua da ikerketa egingo dutenak bertakoak izatea, jasotako ezaguera hori zonaldetik joan ez dadin”. Ikerketa horretan ikusi zuten zeintzuk ziren herriko ahuleziak eta indarguneak: “Ikusi genuen energia berriztagarrien potentzial handia genuela gure herrian eta ildo hori lantzeari ekin genion udaletxean, 2015ean”.

Plangintza energetikoa egin zuten lehenik, eta udal kontratuak energiak berriztagarriak bermatzen zituzten enpresa etikoekin sinatu zituzten: “Udal kontsumoa ahalik txikiena nola egin aztertu genuen, eta hasi ginen eguzki plaka gutxi batzuk jartzen, adibidez haurreskolan”. Enpresa batekin lotu zuten konpromisoa, herritarrek oinez, korrika edo txirrindan egiten zuten kilometro bakoitzeko diru pixka bat jasotzeko: “Horri esker lortu genuen eguzki plakak haurreskolan jartzea. Guretzat oso garrantzitsua da jendea konprometitzea eta energiaren gaiarekiko duen distantzia murriztea. Herritarren eta udalaren arteko proiektua izan dadila”.

### FRONTOIKO ESTALKIAN EGUZKI PLAKAK

2018an frontoiaren estalkian eguzki plakak jartzeko proiektua egin zuten eta 2019an jarri zituzten martxan 40 kilowatioko eguzki plakak: “Euskal Herrian lehen aldia da autokontsumo banatua legez onartu dutena, hau da, ekoizpen eta kontsumo puntu bat izateaz gain, energia hori eramaten dugu sei udal azpiegiturretara, eta horrela elektrizitate horrekin hornitzen ditugu udaletxea, ludoteka, kultur etxea, frontoia, pabilioia eta kaleko argia.

Herritarren kontzientzia piztu eta energiarekiko interesa elikatzeke, Izarkomen bidez udaletxe atarian telebista jarri dute eta bertan ematen dute frontoiko eguzki plaken proiektuari buruzko informazioa.

### HERRITARREN ENERGIA KOMUNITATEA

2018an Garesko Udalak eta zonalde horretako garapen agentziak prozesu partehartzailea jarri zuten martxan, herritarren artean talde motor bat sortzeko. Hortik sortu zen Gares Energia, eta herritarrek daramate proiektu honen lidergoa: energia komunitate bat sortuko dute, frontoiaren estalkiaren beste zatian. “Udalak frontoiko estalkiaren beste erdia herritarrei utzi nahi die, ener-



**OIHAN MENDO**

GARESKO ALKATEA

gia komunitate bat sortu dezaten eta bertan energia sortu ahal izan dezaten, gero beraien etxeetan kontsumitzeko”. Garesen garrantzia handia du autokontsumorako aukera hau zabaltzeak, “gure alde zahararen ondarea oso babestuta baitago, Done Jakue bidea bertatik pasatzen delako eta beraz, ezin dira eguzki plakak jarri teiltatun”.

2020ko irailean prozesu parte-hartzailea hasi du Gares Energiak herri osoarekin, azalduz zer den transformazio energetiko jasangarri bat, zer eskatuko lukeen energia komunitatea sortzeko, nola kudeatuko den beraien artean entitate hori, juridikoki nola egituratu... 2021ean komunitate energetikoa eratzea espero dute.

### ZENTRAL HIDRAULIKOA

1918tik 1983ra arte martxan egon zen herriko zentral hidroelektriko txikia berritu eta autokontsumorako berriz martxan jartzea da udalaren beste erronketako bat. 2021ean idatziko dute proiektua “eta dena ongi badoa 2022an zentrala berreskuratzea espero dugu” dio Mendok.

Horrez gain, autokontsumorako eguzki plakak jartzeko ordenantza egitea da udalaren hurrengo erronka, prozesu parte hartzaile bidez: “Ordenantzaren bidez erraztu nahi dugu enpresa txiki, tokiko komertzio eta herritarrek haien etxeetan eguzki plakak jarri ahal izatea”. ●



# Erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatibak

**Puska dezagun izotza solasaldi zikloaren baitan azaldu dute Abaraska proiektua. Interneteko [www.argia.eus/multimedia](http://www.argia.eus/multimedia) kanalean dago elkarrizketa osoaren bideoa ikusgai.**

**ANA ALMANDOZ:** Euskal Herrian bagara erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatiben ereduia sustatzen ari garen talde batzuk. Abaraska Donostian sortutako taldea da.

**MAITE LETURIA:** Bertako taldeon artean ezberdintasunak badira, baina eredu honen ezaugarri nagusia jabetza da: eraikinaren jabetza norbanakoena izan beharrean, kooperatibarena da eta bertako bizilagunak kooperatibako bazkide izango gara. Edozein kooperatibatan bezala, bazkide bakoitzak hasierako ekarpen bat egingo du, eta hileroko kuota bat ordainduko du. Kuota hori eraikina eraikitze edo birgaitze erabili behar izan den dirua itzultzeko erabiliko da, baita etxebizitzaren mantenturako eta beste hainbat gastutarako ere. Eredu honek bilatzen du etxebizitzaren gaineko espekulaziorik ez egotea, etxebizitza merkatuko produktu izan beharrean, oinarriko eskubide bat dela bermatu ahal izateko.

Abaraskaren kasuan, Bartzelonan aurrera eramaten ari diren ereduari eutsi diogu guk, hau da, zoru publikoan eraiki nahi dugu etxebizitza, horrela ereduia izan dadin eta ez kasu isolatu bat.

**A. ALMANDOZ:** Euskal Herrian hainbat talde bagaude, baina inork ez du lortu oraindik azken fasean sartzea, hau da, elkarbizitzaren hastea. Oraingo panorama nahiko anitza da: talde guztiak ez daude gu bezala lur publiko baten zain. Erabilera lagapena bilatzen dute baina lursail pribatu batean, eta beraz, ez dira ari administrazioarekin negoziaketan. Landa eremuko hainbat talde daude horre-

la, hirietako taldeak aldiz gehiago dira publikotik jotzearen aldekoak. Talde batzuk intergenerazionalak dira baina beste asko ez, haiek adinoko jendearekin zuzenduta daude.

Abaraskan elkarbizitza intergenerazionala ere lantzen dugu, eta aukera baliatu nahi dugu beste elkarbizitza eredu bat erraztuko duten espazioak diseinatzeko hasieratik, eta taldeak diseinuan parte hartuta.

**M. LETURIA:** Arkitekturatik asko ari da lantzen ea zer den hiria, nolako hiriak nahi ditugun: zaintzak partekatu ahal izateko hirigintza egitea, hau da, zaintza esparru guztietan eta denon artean egiteko aukera ematen duten guneak sortzea, zaintzak ikusaraziz, eta ez etxe zokoan ezkutuan egin behar izatea.

Erabilera lagapeneko ereduak bokazio publikoa du, espazio publikoa eta espazio pribatua (etxea) nahastuko diren tarteko espazioak sortuz: eraikinean dagoen komunitate zentzua auzo mailara pasatzea da asmoa.

**A. ALMANDOZ:** Abaraskan ikusi dugu oso garrantzitsua dela diseinua etxebizitzaren oinarrian dagoen taldearekin ongi lantzea. Bi prozesuek paralelo joan behar dute, bestela diseinuak oso gaizki erantzungo die



## ANA ALMANDOZ ETA MAITE LETURIA

ABARASKA PROIEKTUKO  
KIDEAK ETA JUNTURA  
KOOPERATIBAKO ARKITEKTOAK

taldearen beharrei. Eraikin osoaren diseinuaren kontrola izan dezakegu eredu honekin, adibidez, etxebizitza kooperatiban denon artean erabakitzen da ea energia aurrezteko sistemak jartzen inbertitu nahi den, luzera talde horrek jasoko baititu etekin ekonomiko horiek.

**M. LETURIA:** Gauza berria dirudi, edo zerbait puntuala, baina ez da hala: etxebizitza kooperatibak Danimarkan 100 urtetik gora doaz, eta etxebizitzaren %30 kooperatibak dira han. Uruguayan administrazioetik oso eredu sozial indartsua sustatzen dute, hamar urtean pasa dira 100 etxebizitza kooperatiba izatetik 10.000 izatera. Frantzia ere badaude, Alemanian, Erresuma Batuan... ●





Jende gehiagori  
ahotsa emateko,  
lagun gehiagorengana  
heltzeko eta  
eragiten jarraitzeko  
**EGIN ARGIAKOA!**

***Bizi nahi duen herria!***